

LAN ESKAINTZA PUBLIKOA. Atzoko bigarren azterketa gainditzen dutenak meritu probara igaroko dira

1.500 hautagai aurkeztu dira Hezkuntza Bereziko 100 langile posturako



MARISOL RAMIREZ / ARGAKZI PRESS

Bigarren azterketa izan zuten atzo Bilboko Nazioarteko Erakusketa Azokan Hezkuntza Bereziko laguntzaile postua lortu nahi duten 1.500 hautagaik. Guztira ehun lanpostu eskaini dizkie aurreko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak irakasle ez diren langileei. Iazko abenduaren 6an egin zen lehen azterketa eta 1.807 lagun aurkeztu ziren. Horietatik, 1.523k gainditu zuten lehen proba, eta atzo zuten aukera meritu faserara igarotzeko. Postua eskuratzen duten ehun langileek datorren ikasturtean ekingo diote lanari, aurtengo irailaren 1etik aurrera, hain zuzen ere.

ENPRESAK. Langileen ustez, A4 paper produkzioa mantendu balitz, lantegiak iraun zezakeen

Iberpapelek Hendaiaiko lantegiko produkzio saila desegin nahi du

23 lanpostuetatik 20 arriskuan daude, paper autokopiantearen merkatua krisian delakoan

Eneko Bidegain | BAIONA

Iberpapel enpresak Hendaian duen lantokiko 23 lanpostuetatik hogeia arriskuan daude. Papeterie de l'Atlantique lantegiko zuzendaritza langileen ordezkariak EGUNKARIARI zehaztu zionez. Krisiaren arrazoiak: etxeetako inprimagailuen merkatuaren jaustia.

Hendaiaiko lantegiak, 2001eko abenduaren 4a arte, A4 orriak ere ekoizten zituen. Baina egun hartan, zuzendaritzak, ekoizpen horretarako makina Hernaniko etxe nagusiari—Zikuñaga paper konpainia—«saldu» zion. Tricard-ek dio salmenta hori «bakoitzak bere autoa bere buruari saltzea bezala» dela. Makina hura Hen-

sian dagoela azaldu zuten zuzendaritzak, Stephane Tricard langileen ordezkariak EGUNKARIARI zehaztu zionez. Krisiaren arrazoiak: etxeetako inprimagailuen merkatuaren jaustia.

Hendaiaiko lantegiak, 2001eko abenduaren 4a arte, A4 orriak ere ekoizten zituen. Baina egun hartan, zuzendaritzak, ekoizpen horretarako makina Hernaniko etxe nagusiari—Zikuñaga paper konpainia—«saldu» zion. Tricard-ek dio salmenta hori «bakoitzak bere autoa bere buruari saltzea bezala» dela. Makina hura Hen-

daiara itzul dezaten galdegiten dute langileek.

Etxeetako inprimagailuek A4 orriak erabiltzen dituzte, Hendaian duela 13 hilabete arte ekoizten zituztenen gisakoak. Tricard ziur dago, makina hura Hendaian atxiki balute, gaur egun ez zirela oraingo kinkan egonen. Gainera, Iberpapel ez dagoela krisian dio. Enpresaren datuen arabera, 2002ko lehen sei hilabeteetan 9,63 milioi euroko etekinak ateratu zituzten, eta 2001ean 18,29 milioi eurokoak. Hori horrela izanik, Hendaiaiko lantegia biltegi bihurtzea ez zaie

onargarria iruditzen langileei. Paper autokopianteen ekoizteko makinak bertze mota bateko paperak ekoizteko egokitu daitezkeela azaldu zuen Tricard-ek. Baina zuzendaritzak hori ukatzen du.

Hogeia langileetatik zazpiti Hernaniko lantegian hasia proposatu zaie, eta bertze bati Madril. Haatik, zortzi horietatik bost «koadroak» direla dio Tricard-ek. Gaitasunik apalena duten 15 langileetatik hiruri bainik ez zaie bertze lan bat proposatu. Bertze bilera bat izanen da bi aste barru.

ZERGA

PFEZaren erreformak kapitalari mesede egiten diola dio LABek

Europa press | BILBO

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan onartutako erreformak kritikatu ditu LABek. Sindikatu abertzalearen irudiko, zerga sistemaren mailaketa murrizten dute eta kapitalaren errenten mesederako dira. Araban eta Bizkaian neurriak onartu dira, eta asteon gauza bera gertatuko da Gipuzkoan. Nafarroan, berriz, otsailean eztabaidatuko da Gobernuaren ekimena.

PPk iragan urtean Espainiako Kongresuan bultzatu zuen erreformaren «ildo» segitzen dute proposatutako neurriek, LABek ohartarazi duenez. Horren haritik, burujabetze fiskalaren «gabezia nabaria» salatu du sindikatuak. LABen arabera, 272 milioi euro gutxiago bilduko dira zergen bidez, eta gizartearen behar ugarietarako aurrekontuak ezin izango dira hantitu.

Erreformaren sustatzaileei euren asmoak «mozorrotzea» leporatu die sindikatuak, jarduera ekonomikoa indartzeko dela argudiatu baitute.



OSALAN
Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales

JARDUNALDI TEKNIKOAK

"LANEKO ISTRIPUAK IKERTZEKO GIDA"

Barakaldo, 2003ko urtarrilaren 22a
Vitoria-Gasteiz, 2003ko urtarrilaren 29a

"PREBENTZIO JARDUERAK HITZARTZEA KANPOKO PREBENTZIO ZERBITZU BATEKIN"

Barakaldo, 2003ko otsailaren 5a.
Vitoria-Gasteiz, 2003ko otsailaren 12a.
Donostia - San Sebastián, 2003ko otsailaren 19a.

Izena emateko tokiak:

Bizkaiko Lurralde Zentroa. Dinamita Bidea z/g, Basatxu Mendia, Gurutzeta-Barakaldo.

Telefonoak: 94 - 403 21 26

94 - 403 21 12

Faxa: 94 - 403 21 07

e-posta: osalancatba@ej-gv.es

Arabako Lurralde Zentroa.

Urrundi kalea, 18. Vitoria-Gasteiz.

Telefonoak: 945 01 68 23

945 01 68 12

Faxa: 945 01 68 01

e-posta: osalancatga@ej-gv.es

Gipuzkoako Lurralde Zentroa.

Maldatxo Bidea z/g. Donostia -

San Sebastián.

Telefonoak: 943 02 32 50

Faxa: 943 02 32 51

e-posta: osalanad01@ej-gv.es

www.osalan.net



Noaua //

Noaua! Kultur Elkarteak Neguko eta Udako Euskal Txokoetarako begirale bat behar du.

Neguan asteen 9 orduko lana eta Udaran, uztaile osoa, egun erdiko lana izango da. Hona hemen aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Curriculum-a
- EGA edo baliokidea den agiria
- Begirale titulua
- Usurbildarra izatea baloratuko da.

Dokumentazioa urtarrilaren 23a baino lehen bidali behar da honako helbideetara:

Postaz: Noaua! Kultur Elkarte, Bordaberri, 3-20170 Usurbil

E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net edo noaua@topagunea.com

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

IKASTETXE PUBLIKOETAN ORDEZKAPENAK EGITEKO IZANGAIEN ZERRENDEN IREKIALDIA

Araudi ezargarria: 1995eko irailaren 13ko Erabakia, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langilearen Kudeaketa zuzendariarena (1995-10-05eko EHAA).

GIPUZKOAKO L.H.

BIGARREN HEZKUNTZA:

1. HE, 2. HE edo baliokidearekin:

- Teknologia
- Sistema Elektronikoa
- Fabrikazio Mekanikoaren Antolakuntza eta Proiektuak
- Ekipo Elektronikoa
- Zurgintzako eta Altzarien Fabrikazioa eta Instalazioa.

Eskabideak aurkezteko epea:

Zerrendak zabalik egongo dira 2003ko urtarrilaren 21etik, 24ra (biak barne).

OHARRA: Deitutako espezialitateetan hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen ez dutenek ere izena eman ahal izango dute; horrelakoei izangaien zerrendan sartzeko deituko zaie baldin eta hizkuntza-eskakizuna duen izangairik ez badago.

Eskabideak aurkezteko tokia:

Hezkuntza Lurralde Ordezkaritza. Andia 13. DONOSTIA. Tel. zkia. 943 022 850